**Azalpen txostena, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Urriaren 20ko 15/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala, eta bertan ezarri ziren departamentu horren jardun esparrua eta eginkizunak, eta horretarako beharrezkoa zuen antolaketa; hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzeko diputatu nagusiaren ekainaren 29ko 3/2019 Foru Dekretuaren 6. artikuluan eta oinarrizko departamentu egiturari buruzko uztailaren 1eko 19/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa garatuz.

Diputatu nagusiaren azaroaren 16ko 7/2020 Foru Dekretuaren bidez, 3/2019 Foru Dekretua indargabetu da; eta berriz zehaztu ziren Foru Aldundiko departamentuak eta horien jardun esparruak eta eginkizunak. Horrela, Proiektu Estrategikoetako Departamentua ezabatu zen; eta xedatu zen hari esleitutako eginkizunak -Etorkizuna Eraikiz eredua sustatzera bideratuta zeudenak- Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egitea.

Beraz, 7/2020 Foru Dekretuaren 8. artikuluarekin bat etorriz, departamentu horrek bere gain hartzen ditu nola 3/2019 Foru Dekretu indargabetuak esleitu zizkion jardun esparruak eta eginkizunak hala desagertutako Proiektu Estrategikoetako Departamentuari zegozkionak ere, bere egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuan islatutakoak, alegia.

Aldi berean, antolaketa egokitze aldera departamentuen eta horien jardun esparru eta eginkizunen zehaztapen berriari, azaroaren 17ko 23/2020 Foru Dekretua onartu zen: 19/2019 Foru Dekretua indargabetu eta Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egitura berria ezartzen duena; eta, zehazki, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuan zuzendaritza nagusi berri bat sortzen duena, esleitutako eginkizun berri horiek betetzeko (4. artikulua). Horrela, zazpi zuzendaritza nagusik osatzen dute departamentua: Ekonomia Sustapenekoa, Berrikuntzakoa eta Internazionalizaziokoa, Turismokoa, Nekazaritzako eta Lurralde Orekakoa, Mendietako eta Natura Ingurunekoa, Landa Udalerrien Garapenerakoa,

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El Decreto Foral 15/2020, de 20 de octubre, aprobó la estructura orgánica y funcional del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y fijó su ámbito de actuación y funciones así como la organización con la que se dotaba para ello, en desarrollo de lo dispuesto por el artículo 6 del Decreto Foral del diputado general 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, y del artículo 2 del Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio, sobre estructura departamental básica.

Mediante el Decreto Foral del diputado general 7/2020, de 16 de noviembre, se ha procedido a la derogación del Decreto Foral 3/2019 y se realizó una nueva determinación de los departamentos de la Diputación Foral y de sus áreas de actuación y funciones; así, se suprimió el Departamento de Proyectos Estratégicos y se dispuso que las funciones atribuidas a dicho departamento -orientadas a impulsar el modelo Etorkizuna Eraikiz- se desarrollasen por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Por tanto, y de acuerdo con el artículo 8 del Decreto Foral 7/2020, este departamento asume tanto las áreas de actuación y funciones que le fueron atribuidas por el derogado Decreto Foral 3/2019 como las que correspondían al extinto Departamento de Proyectos Estratégicos y reflejados en su decreto foral de estructura orgánica y funcional.

A su vez, y al objeto de adecuar la organización a la nueva determinación de departamentos y de sus áreas de actuación y funciones, se dictó el Decreto Foral 23/2020, de 17 de noviembre, que deroga el Decreto Foral 19/2019 y establece la nueva estructura departamental básica de la Diputación Foral, creando una nueva dirección general en el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, que desempeñará las nuevas funciones atribuidas (artículo 4). De esta forma, el departamento se compone de siete direcciones generales: de Promoción Económica, de Innovación e Internacionalización, de Turismo, de Agricultura y Equilibrio Territorial, de Montes y Medio Natural, la Dirección General para el Desarrollo de

eta Proiektu Estrategikoetako Zuzendaritza Nagusia.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egituran aldaketa horiek egin ondoren, Departamentuaren 2021eko aurrekontuan aurrekontu-programa berri bat sartu da, 700, "Proiektu estrategikoak" izenekoa.

**EKONOMIA SUSTAPENA, BERRIKUNTZA eta INTERNAZIONALIZAZIOA.**

Aurrekontuak prestatzean erabilitako irizpideak hauek izan dira:

- Kudeaketa Plan Estrategikoan konprometitutako lan ildoak indartzea.
- Enpresa proiektu lehiakorrak eta jasangarriak (ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik) sortzeko eta garatzeko giroa bultzatzea.
- Enpresei laguntza ematea, kalitatezko enpleguaren eta pertsonen garapenaren aldeko apustua egin dezaten, arreta berezia ipiniz emakumeen eta gazteen garapen profesional eta pertsonalari.
- Gipuzkoa Europa mailan I+G arloko eskualde aitzindari gisa posizionatzeko konpromisoari eustea.
- Gipuzkoako espezializazio adimenduna indartzea, enpresaren eraldatze lehiakorra sustatzea berrikuntzaren eta 4.0 teknologien bidez, ZTB ekosistemaren bikaintasuna eta agenteen arteko elkarlana.
- Programen eta jardueren garapenetan departamentuen arteko lankidetzaren antolaketa hobetzea.
- Etorkizuna Eraikiz dinamikarekin bat etorriz, pertsonek enpresetan duten parte hartzea sustatzearen esparruan identifikatutako praktika onak zabaltzea, horretarako sustapen tresnak abian jarriz.
- Pertsonen garapena osatzen duten eta gizartean/lurraldean garatu eta errotzen diren enpresa ereduak azpimarratzea, iraunkortasun hirukoitzaren irizpideak

Municipios Rurales y la Dirección General de Proyectos Estratégicos.

Tras estas modificaciones en la estructura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el presupuesto del Departamento del año 2021 se incluyó un nuevo programa presupuestario, el 700, denominado “Proyectos Estratégicos”.

**PROMOCIÓN ECONOMICA, INNOVACIÓN E INTERNACIONALIZACIÓN.**

Los criterios utilizados en la elaboración de los presupuestos, han sido:

- Profundizar en las líneas de trabajo comprometidas en el Plan Estratégico de Gestión.
- Favorecer la creación y desarrollo de proyectos empresariales competitivos y sostenibles (económica, social y medioambientalmente).
- Ayudar a que las empresas apuesten por la calidad del empleo y el desarrollo de las personas, con especial atención al desarrollo profesional y personal de mujeres y jóvenes.
- Mantener el compromiso de posicionar a Gipuzkoa como una región puntera en materia de I+D a nivel europeo.
- Reforzar la especialización inteligente de Gipuzkoa, la transformación competitiva de la empresa mediante innovación y tecnologías 4.0, la excelencia del ecosistema CTI y la colaboración entre agentes.
- Mejorar la articulación de la colaboración interdepartamental en el desarrollo de programas y actuaciones.
- En coherencia con la dinámica de Etorkizuna Eraikiz, extensión de las buenas prácticas identificadas en el ámbito de la promoción de la participación de las personas en las empresas con la puesta en marcha de instrumentos de apoyo para su implantación.
- Incidir en modelos empresariales que respondan desde su triple sostenibilidad al desarrollo de las personas –retención, desarrollo y atracción de talento que las

biltzen dituztenak (talentua gordetzea, garatzea eta erakartzea).

- Kalitatezko enpleguaren aldeko apustua egitea.

- Garapen endogenoaren sustapenerako politikak eta tresnak berriz diseinatzen sakontzea, lurraldeko eragileekin eta eragile sozioekonomikoekin elkarlanean.

- Enpresen nazioartekotzearen aldeko apustua berrestea, lehiakortasuna indartzeko funtsezko alderdia den aldetik, laguntza-programarekin batera, lehentasunez ETEei begira.

- Biozientzia/Osasunaren alor estrategikoan proiektu enpresarial berriak bultzatzeko ahaleginekin jarraitzen da, Espezializazio Inteligenterako estrategiaren barruan Euskadik egin duen apustuetako bat da.

2023 ekitaldian area hauek mantentzen dira, ikuspuntu kuantitatibotik, departamentuaren oinarrizko ardatzetako bat bezala.

**TURISMOA**

Turismo jarduera aberastasuna eta enplegua sortzen duen sektore ekonomiko bat da Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat, eta seguruenik azken urteotan portaera onena izan duena.

Gipuzkoa da turismoak ekonomian eragin bultzatzailerik handiena duen lurralde historikoa, BPGren % 7,6rekin; beraz, lurraldearen erronka da turismoa industria gisa aitortzea, haren onurak gizartean integratuz eta ezagutaraziz.

Testuinguru horretan, 2023ko aurrekontuak hainbat partida jasotzen ditu sektore hori prest egotea eta bertako enpleguari eutsi ahal izatea lortzeko.

**NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA**

Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko ahaleginak bi programetan biltzen dira: Mendialdeetarako Konpentsazio Ordainak eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategiak Modernizatzeko Plana. Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko

conforman y a la sociedad/territorio en las que se desarrollan y enraízan.

- Apuesta por el empleo de calidad.

- Profundizar en el rediseño de las políticas e instrumentos de promoción del desarrollo endógeno de acuerdo con los agentes territoriales y socio-económicos.

- Reafirmar la apuesta por la internacionalización de las empresas como aspecto fundamental de su reforzamiento competitivo, junto con el programa de ayudas, enfocado preferentemente a las pymes,

- Se continúa con el impulso de nuevos proyectos empresariales en el ámbito estratégico de las biociencias / salud, una de las apuestas que Euskadi ha realizado dentro de su Estrategia de Especialización Inteligente.

Estas áreas se mantienen en el ejercicio 2023, desde el punto de vista cuantitativo, como uno de los ejes básicos del departamento.

**TURISMO**

La actividad turística constituye para el Territorio Histórico de Gipuzkoa un sector económico generador de riqueza y empleo, y probablemente el que mejor comportamiento ha tenido en los últimos años.

Gipuzkoa es el territorio histórico con mayor impacto tractor del turismo sobre la economía, con un 7,6 % del PIB, por lo que el territorio tiene el reto de reconocer el turismo como una industria, integrando y dando a conocer sus beneficios en la sociedad.

En este contexto, el presupuesto 2023 contempla diversas partidas destinadas a conseguir que este sector esté preparado y que se pueda mantener el empleo en el mismo.

**AGRICULTURA Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

Además de los créditos contemplados en dos programas dirigidos a favorecer la competitividad del sector agroganadero: Línea de Indemnizaciones compensatorias de montaña y Plan de modernización de explotaciones agroganaderas, se mantiene la línea de ayudas para caminos rurales del

landa-bideetarako laguntza-ildoa mantentzen da.

Sektorean asoziazionismoa eta lan kolektiboa bultzatzen duten sektoreko elkarteekin hitzarmenak egonkortzen dira. Era berean, hitzarmenen berrikustea eta gaurkotze prozesuarekin jarraituko da, hortaz, erakundearen eta azpisektore desberdinen artean partekatuta, definituko diren behar eta erronka berriei erantzuna emango zaizkie.

Nekazaritza lurren kudeaketarako ahalegina mantentzen da Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzaren lankidetza estuan.

Helburu nagusienetako bat burokrazia gutxitzea da. Horretarako, informazio sistemak optimizatzeko lanekin jarraitzea aurreikusten da. Era berdinean, Landa Inguruneko arloko zuzendaritzen funtzionamendu eta barne antolakuntzaren oinarrizko hobekuntza eremuak identifikatuta, hauek ezartzearekin jarraituko da.

## MENDIAK ETA NATUR INGURUNEA

Baso jarduera suspertzeko Planean ahaleginekin jarraitzen da.

Jardueren artean azpimarratzen da gaixotasuna duten landaketen mozketa sustatuko dela. Era berean, birlandaketa, lursailetara sarreren hobekuntza eta baso makineria erostea sustatzen da ere.

Mendiko larreak kudeatzeko ahalegina indartzen jarraitzen da Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritzaren laguntzaz, lan taldeekin sortutako dinamikak sustatuz. Lan ildo horrek dagokion udalekin lankidetza estuan lan egitea eskatzen du.

Habitatak eta naturagune babestuak mantentzeko eta zaintzeko ahalegina mantentzen da hainbat Europako programetan parte hartuz.

## PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Programa hau horretara zuzenduta dago dauden proiektu estrategikoak finantzatzea (existentes (Ziiur Fundazioa, Adinberri Fundazioa eta Mubil Fundazioa).

Halaber, « Elkar-EKIN Lanean enplegua eta gizarteratzea sustatzeko » programako diru-laguntzak emateko kredituak jasotzen dira.

Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se consolidan los convenios con las asociaciones sectoriales que promueven el asociacionismo y el trabajo colectivo en el sector, a la vez que se continúa con el proceso de revisión y actualización de los mismos de manera que respondan a las nuevas necesidades y nuevos retos que se definan de forma compartida entre la institución y los distintos subsectores.

Se mantiene el esfuerzo en la gestión de suelo agrario estrechando la colaboración con la Dirección de Montes y Medio Natural.

La reducción de la burocracia sigue siendo uno de los objetivos primordiales y para ello se prevé continuar con los trabajos de optimización de los sistemas de información y la implantación de los ámbitos de mejora en el funcionamiento y organización interna de las Direcciones del área de Medio Rural.

## MONTES Y MEDIO NATURAL

Se continúan incrementando los esfuerzos en el Plan de reactivación de la actividad forestal.

Entre las distintas acciones se hace hincapié en promover la corta de plantaciones con enfermedades. También se promueve la replantación, la mejora de accesos a los terrenos, así como la adquisición de maquinaria forestal.

Se continúa reforzando el esfuerzo en la gestión de pastos de montaña en colaboración con la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural, con las dinámicas surgidas con los grupos de trabajo creados. Esta línea de trabajo supone estrechar la colaboración con los ayuntamientos correspondientes.

Se mantiene el esfuerzo de conservación y mantenimiento de hábitats y espacios naturales protegidos participando en diversos programas europeos.

## PROYECTOS ESTRATÉGICOS

Este programa está destinado a financiar los proyectos estratégicos existentes (Fundación Sur, Fundación Adinberri y Fundación Mubil).

Asimismo, se contemplan créditos para la concesión de las subvenciones del programa para la «Promoción del empleo y la inserción socio-laboral elkar-EKIN Lanean».

04 Departamentua EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 04 DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingur<br>Servicios Generales de Promoción Económica, Turi | 1.679,05 | 462,42 | | | | 2.274,59 | | 2.200,00 | | 6.616,06 |
| 10. LK- Lurraldearekiko Konpromezua/<br>LK- Compromiso con el Territorio | 163,66 | 1.184,00 | | 15.586,72 | | | 1.133,63 | 2.756,17 | | 20.824,19 |
| 11. Eskulangintza Sektorearen Sustapena/<br>Promoción del Sector Artesanal | 602,83 | 22,00 | | 360,80 | | | 84,20 | | | 1.069,83 |
| 20. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea/<br>Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovac | 145,70 | 72,60 | | 1.580,00 | | | 5.345,00 | 1.950,00 | | 9.093,30 |
| 21. Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea/<br>Promoción de la Internacionalización | | | | 1.157,00 | | | 220,00 | | | 1.377,00 |
| 22. Gipuzkoa 4.0:Fabrikazio aurreratua/<br>Gipuzkoa 4.0: Fabricación avanzada | 396,45 | 300,00 | | 2.228,22 | | | 2.245,97 | | | 5.170,64 |
| 30. Turismo eta lurralde irudia/<br>Turismo e imagen territorial | 315,32 | 1.569,85 | | 2.955,00 | | 10,00 | 375,00 | | | 5.225,17 |
| 40. Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/<br>Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias | 2.852,15 | 874,38 | | 7.557,76 | | 860,83 | 5.558,75 | | | 17.703,88 |
| 41. Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua/<br>Servicio de Inspección y Control | 1.137,89 | 817,46 | | | | 43,15 | | | | 1.998,50 |
| 42. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapena eta Os<br>Promoción y Sanidad Agro-ganadera | 1.241,84 | 1.725,34 | | 2.600,35 | | 18,52 | | | | 5.586,04 |
| 50. Mendiak eta Habitaten Kudeaketa/<br>Montes y Gestión de Hábitats | 4.186,44 | 1.199,08 | | 1.451,03 | | 1.458,16 | 3.487,94 | 1.600,00 | | 13.382,64 |
| 51. Basa Animaliak eta Landareak/<br>Fauna y Flora Silvestre | 1.284,70 | 667,50 | | 312,00 | | 234,41 | 100,00 | | | 2.598,61 |
| 70. Proiektu Estrategikoak/<br>Proyectos Estratégicos | 390,91 | 695,00 | | 7.590,09 | | 16.595,00 | 11.884,54 | | | 37.155,54 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **14.396,94** | **9.589,63** | | **43.378,97** | | **21.494,66** | **30.435,03** | **8.506,17** | | **127.801,40** |

